

Bilbon, 2006ko uztailaren 10ean

## Bahía de Bizkaia-k Guggenheim Bilbao museoaren enpresa ongile izateko hitzarmena berriztatu du.



Bahía de Bizkaia enpresak gaur goizean sinatu du Museoko Atrioan Guggenheim Bilbao Museoaren Kide Korporatiboen programan duen konpromisoaren berriztapena, 2001. urtetik Enpresa Ongile gisa parte hartzen duelarik.

Bahía de Bizkaia honela beste bost urteko aldirako luzatzen du gaur egungo kulturari ematen dion sostengua.

Bahía de Bizkaia Gas eta Bahía de Bizkaia Electricidad enpresek Euskal Autonomia Erkidegoarentzat proiektu estrategiko garrantzitsua izango dena garatzen ari dira, izan ere gas likidotua lurruntzeko instalazioa komertzialki ustiatzen dute eta energia elektrikoa sortzen dute etxeko, merkataritzako eta industriako kontsumoaren hornidura eta segurtasuna bermatzeko EAEn eta Europako Arku Atlantiko osoan.

Hitzarmenaren sinaduraren ekitaldian Bahía de Bizkaia Gas S.L. enpresako lehendakaria, Conrado Navarro Navarro, eta Bahía de Bizkaia Electricidad S.L.-ko lehendakaria, Francisco Javier Lobato San Pedro, egon dira, bai eta José Luis Bilbao jauna, Bizkaiko Foru Aldundiko Ahaldu Nagusia, Guggenheim Bilbao Museoaren Fundazioaren Batzorde Betearazlearen lehendakaria den aldetik.

